

barriek

HURRENGO ERAKUSKETA

Ra Asensi

2026ko otsailak 10 - apirilak 12

2025eko abenduak 16 – 2026ko otsailak 8

Maria Muriedas

ORDUTEGIA

Asteartetik larunbatera 11:00 - 15:00 / 16:00 - 20:00

Igande eta jai egunetan 11:00 - 15:00

Astelehenetan itxita

Iparragirre 21

48009 Bilbao

T. +34 94 406 85 32

salarekalde.bizkaia.eus

salarekalde@bizkaia.eus

@rekaldearetoa

EUSKARA



rekalde

Maria Muriedas

Maria Muriedas Diez (Mungia, 1994) Arte Ederretan graduatu zen EHUUn 2016an, eta jarraian Arte Garaikide Teknologiko eta Performatiboa masterra egin zuen 2017an, unibertsitate berean, zeinetan, gaur egun, Eskulturako zein Arte eta Teknologiaiko sailko irakaslea den. Argazkigintza eta mugitzen ari den irudia aztertzean oinarritzen du lan-ildoak, garatuz, praktika artistikoan ez ezik, musika-bideoen esparruan ere. Egonaldi artistikoak egin ditu bai AEBko Renon 2017an, Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroan, eta bai Tokion 2018an, Youkobo Art Spacen. 2018an, Ertibil Bizkaia lehen saria eskuratu zuen, bai eta Getxoarte saria ere. Hainbat banakako eta talde erakusketetan parte hartu du, honako hauetan, besteak beste: Ereduak-ek Harriak programan 2016an antolatutako *Zabor Zuria*; Okela Sormen Lantegiak sustatutako *Galeriak. Oskola Parau*, 2018an; *Kao. Lora*, *Sandía ta Printzesa* Bilboko Berreginen Museoan 2019an, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuta; *Kawaii* Algortako Torrene aretoan 2019an, edo *Urrea zilarra/Gold silver* Arrietako San Martin Gotzaina elizan eta Londresko Studio D aretoan 2024an.

Rekalde Aretoak MARIA MURIEDASen *Caua sartzekotan* erakusketa aurkezten du, barriek programa barruan. Programa horrek ikusgai jartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren arte plastiko eta ikusmen-arten bekez gozatu duten artisten aukeraketa bat.

Jakin-mina eta lilura bat eginda elkar-korapilatu gara Maria eta biok fakultatetik gaur egunera. Urteak pasa ahala, proiektuetan elkarren presentziak garrantzia hartu du, bestearen begirada norberarenarekin gehiago nahastuz, nahiz eta bakoitza bere desira propioetan murgilduta egon, bi desirak bat egin ohi dutelako gure ametsetan. Ametsak lo existitzen baitira, baina baita bi neska elkartzen direnean ere, eta haien eguneko plana zisneak grabatzea denean, edo distirak, musuak, kantu baten istorioa... guzti hori munduko gauzarik garrantzitsuena izango balitz bezala planeatuta, eta egun batez, izan badela sinesten dugu eta hori amets polit bat da, are gehiago, errealtatea eraldatzen du bizitza batean zehar.

Horregatik, esango nuke, Maria nire laguna dela ametsetan ezagutu dudalako, egunerokoan baino askoz gehiago. Ziur aski, beste inorengatik ezin dut hori esan, orain pentsatzen ari naizela.

Hasieran, bere erakusketa bat amestu nuen, oraingo honetan lo nengoela, pantaila eta bere bideo askorekin, eta irudi horiek gauzatuko zituela esan zidan. Itzulpen eta eraikitze prozesua abiatzean, noski, bereak egin zituen, berriak, bere esna-ametsak, eta iruditegi egin zituen, unibertso autoeraginkor, sinbolo.

Irudien atzetik hamaika alditan ikusi dut Maria, behin eta berriz mugimenduak errepikatuz, oso argi dakien zerbaiten atzetik, zehaztasunez jarraituz, eta halaber, urrats bakoitza inprobisatuz. Maria iturri baten gainean super-8aren bidez zerbait harrapatzen; eguzkitan, zaldien misteriozko arrastoa jarraitzen; zelai batean aspertsore baten mugimendua eta posizioa kontrolatzen, batek daki zer sortzeko, eta behin eta berriz planoak errepikatuz... Gerora, irudiak ikusten ditut eta beti maite ditut.

Haietan pentsatzen dudanean, adibidez, isiltasunean pentsatzen dut, aurpegiak, gorputzak, gertu eta plano orokorretan grabatuta, inoiz ez hotz, inoiz ez disezcionaturik, alderantziz, bere azterketak botere bat dauka, nolabait, sentikorrako egingo bagindu bezala, irudian azaltzen denarekiko.

Isiltasuna dago, beraz, atentzio-espazioa zehazten, garrantzia, finkotasunari lekua ematen. Halaber, beste elementu bat ere, Iluntasuna, datorkit gogora, Argiaren eskutik. Argia bortizki hura apurtzen egon daiteke, bai fokoz, bai argi-izpiz, bai flashez; gaua eta bere aita, gaua eta diskoteka-bola bat, gaua eta gorputz bat bainujantzian ur-isladaren argitan... edertasuna eta beldurgarritasuna.

Kasu horietan, ezkutuan dago ia dena, baina berak ekartzen du gainazalera nahi duen hori, eta kontrako kasuan, alegia, egunaren argitan, iluntasunak dirau, baina objektuen edo koloreen baitan, itzaletan, presentzia latente bat balitz bezala. Izan ere, artearen bihotza desira bada, Mariaren desira ez da kaltegabea. Liluraz blai, obsesioa erakusten digu, baina alde antagonista erakutsiz, ikus daitekeena eta ezin dena; antzeman dezakegun politena, eta antzematear dagoen potentzia ezatsegina. Hori bai, beti hautatuz, zer den merezi duen irudi bat, arrotza, sublimea, ondarrean, zeruan, distira batean gordea.